

GUEÑESEN LANGABEZIA MURRIZTEKO ETA EKONOMIA-JARDUERA SUSTATZEKO 2025. URTEKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

Lerroak:

- 1. Gueñesko udalerriko langabeak kontratatzeako dirulaguntzak.**
- 2. Gueñesko udalerrian enpresa-proiektuak instalatzeko laguntzak**

1. LERROA.

GUEÑESKO UDALERRIAN LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO 2025. URTEKO LAGUNTZAK

1.1. Xedea

Dirulaguntza hauen xedea da enpresei Gueñesko udalerrian erroldatuta dauden eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta dauden langabeak kontratatzen laguntzea.

1.2. Aurrekontua

Aurrekontua 20.000,00 eurokoa da. 25.241.471.020 aurrekontu-partida .

1.3. Enpresa onuradunak. Betekizunak

1. Dirulaguntzen onuradun izan ahal izango dira autonomoak, sozietate zibilak eta merkataritzako sozietate pribatuak (enpresak, saltokiak, ostalaritza eta abar), baldin eta egoitza soziala edo fiskala Bizkaian badute eta kontratuak Gueñesko udalerrian erroldatuta dauden pertsonekin egiten badituzte.

Bestalde, honako hauek hartuko dira inguruabar baztertzaile berezitzat:

a) Enplegua sustatzeko programak aplikatzearen ondorioz sortzen diren onurak eskuratzetik baztertuta egotea, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak eta ondoko aldaketek onetsi zuten Gizarte Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginaren 46.2 artikulua jasotzen dituen arau-hausteak egiteagatik.

b) Kontratu mugagabeak desegin izana eskatzen den dirulaguntzaren xede den kontratua sinatu aurreko hamabi hilabeteetan, betiere, kontratu-desegite hori bidegabeko kaleratze bat denean. Enpresa onuradunak horren inguruko zinpeko adierazpen bat egingo du.

c) Kontratazioa egiten den unean, prebentzio-sistema antolatuta eta indarrean dagoela agiri bidez ez egiaztatzea, Lan Arriskuak Prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legeari jarraikiz, Lan Arriskuak Prebenitzeko arau-esparrua aldarazi zuen abenduaren 12ko 54/2003 Legeari jarraikiz eta urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuari jarraikiz. Azkenak Prebentzio Zerbitzuen Araudia onetsi zuen eta, geroago, apirilaren 30eko 780/1998 Errege Dekretuaren bitartez aldatu zen. Betekizun hori dirulaguntzak mantentzeko oinarrietan eskatzen den kontratu-aldian zehar mantendu beharko da.

2. Honako hauek ezin izango dira dirulaguntzen onuradun izan:

a) Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horien menpeko edo haiei

lotutako erakundeak.

b) Birmoldaketa-planek eragindako enpresak.

c) Zerga-betebeharrak Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin edo Gueñesko Udalarekin egunean ez dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, zuzenbide publikoko edozein zor motaren zioz, muga eguneratuta eta likidatuta badago eta premiamendu bidez galdatu badaiteke.

d) Udal-zerbitzu publiko bat emateko atxikitzeko langileak kontratatzen dituzten enpresak.

1.4. Kontratazioa Betekizunak

1. Kontratatuko diren pertsonak Gueñesko udalerrian egon behar dute erroldatuta dirulaguntzaren xede den kontratazioa formalizatzen den unean, eta, gutxienez, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den eguna baino urtebete arinagoko antzintasuna izan behar dute.

2. Diruz lagundu ahal izango dira erabateko langabezia-egoeran dauden eta kontratatu aurretik Lanbiden izena emanda duten pertsonak, langabezia-prestazioak jasotzen egon zein egon ez, behin-behineko kontratuak kontratu mugagabe bihurtzen diren kasuetan izan ezik, non ez den aldez aurreko langabeziaren betekizuna eskatuko.

3. Diruz lagunduko dira **2024ko abenduarenren 1a eta 2025ko azaroaren 30a** bitartean abiarazitako kontratazioak.

4. Diruz laguntzen diren kontratazioak idatziz formalizatu beharko dira eta enplegu-zerbitzu publikoaren bulegoan jakinarazi beharko dira legez ezarritako eran.

5. Kontratuei lotutako lanaldia ezin izango da lanaldi osoan aritzen den langile baten lanaldiaren erdia baino laburragoa izan, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 12. artikuluen 1. apartatuan ezarritako baldintzei jarraikiz.

6. Kontratazioen hasierako baldintzak ezin izango dira aldatu dirulaguntzari dagokion epearen barruan, lanaldia luzatzen den kasuetan izan ezik.

1.5. Kontratuak Dirulaguntza jaso ezin dutenak

Honako hauek baztertu egingo dira:

1. Jarraian aipatutako inguruabarretan dauden pertsonekin egindako kontratuak:

a) Enpresaburua bera.

b) Nortasun juridikorik gabeko erakundeetako bazkideak.

c) Sozietatearen izaera juridikoa duten enpresen administrazio-organoetako administrazioaileak, ahaldunak eta kideak.

d) Sozietatearen izaera juridikoa duten enpresetako bazkideak.

2. Aurreko atalean jasotako inguruabarretan dauden pertsonen eta enpresaren kontrola edo zuzendaritzako kargua dutenen edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko kide direnen ezkontideekin, aurretikoekin, ondorengoekin eta gainerako senideekin egindakoak, odolkidetasunez, ezkontza-ahaidetasunez edo adopzioz, hirugarren maila artekoak barne.

3. Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 2.1. artikuluan edo beste legeko xedapen batzuetan jasotako izaera bereziko lan-harremanak.

4. Kontratua formalizatu aurretik enpresan bertan, enpresa-taldean edo eratorritako enpresetan zerbitzu mugagabea eskaini duten langileekin egindakoak

edo enpresarekin azken hiru urteetan lotura garbia duten pertsonekin egindakoak.

5. Kontratua formalizatu aurreko sei hilabeteetan enpresan bertan, enpresa-taldean edo eratorritako enpresetan zerbitzu mugagabea eskaini duten langileekin egindakoak edo enpresarekin lotura garbia duten pertsonekin egindakoak. Bazterketa hori ez da kontuan hartuko formalizatuko den kontratua mugagabe bihurtu baldin bada.

Udalak ez dio inoiz dirulaguntza bat emango aurreko kontratuekin enpresa berean edo enpresa-talde beren edo ondorengo enpresetan (lotura argia badute) dagoeneko diruz lagundu duen pertsona bati.

6. Aldi baterako lan-enpresek egindako kontratazioak.

7. Dirulaguntza eskatu aurreko hamabi hilabeteetan, kaleratze kolektiboaren bidez kontratuak desegin dituzten enpresek egindakoak. Era berean, ez da onartuko aipatutako epean kontratuak azkendu dituen enpresak egindako kontraturik, diziplinazko arrazoiak edo arrazoi objektiboak direla tarteko, kaleratzeak epai judizial irmoz edo arbitraje-laudoz bidegabetzat jo badira.

1.6. Enpresetako plantilla

1. Kontratazioak egiten direnean, nahitaez handitu behar da plantillako langileen kopurua kontratatu aurreko hiruhilekoaren batez bestekoari dagokionez. Kontratazioaren egunaren aurreko hiru hilabeteetan alta emanda zeuden langileen batez besteko plantillari buruz Gizarte Segurantzak egindako txostena hartuko da aintzat.

2. Langile kopurua zenbatzean, langilearen borondatezko uztearen zioz amaitu diren kontratuak ez dira aintzat hartuko, honako arrazoi hauei dagokienean: lan egiteko ezintasuna, adinagatik erretiroa, zendu izana, bidezko kaleratzea edo COVID-19ak eragindako ABEEEa.

1.7. Kontratuaren modalitateak: Dirulaguntzen zenbatekoak eta betekizunak

A) Diruz lagundu ahal izango dira kontratu mugagabeak eta aldizkako kontratu finkoak, indarrean dagoen legeria berriarekin bat etorriz, prestakuntza-kontratuak kanpo utzita (prestakuntza eta ikaskuntza), bai eta lanpostuaren erreserba duen langile bat ordezkatzeko helburua duten kontratuak ere (bitarteko izaera).

Dirulaguntzari dagokionez, mugagabe eta aldizkako finkoen kontzeptua betetzen dutela jotzen da baldin eta kontratuak, gutxienez, 24 hilabetez egon badira indarrean, eta dirulaguntzari dagokionez ez dira mugagabetzat edo aldizkako finkotzat joko, kontzeptu horien baitan garatu arren, kontratu mugagabeak edo aldizkako finkoak badira ere 24 hilabeteak etenik gabe gaingitu ez dituztenen kasuan.

Kontratuak lanaldi osoan edota lanaldi partzialean egin ahal izango dira (kontratu partzialek jardunaldiaren % 50 izan beharko dute gutxienez).

Lan-kontratuak eskatutako edo, hala denean, diruz lagundutako gutxieneko iraupenaren aurretik desegiteak emandako dirulaguntza itzultzea ekarriko du, azkentze hori kontratugilearen borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, alarma-egoeragatik edo berrogeialdiaren luzapenengatik gertatu ezean. Kasu horretan dirulaguntzaren zenbatekoa lan-kontratuaren benetako iraupenarekiko proportzioan murriztuko da. Eteteko edo suntsitzeko arrazoiak kontratatutako pertsonari egotzi ahal bazaizkio edo probaldia ez gaingitzeagatik gertatzen bada, pertsona hori ordezkatzeko da, eta oinarrietan ezarritako betekizunak (errola, antzinatasuna eta abar) betetzen dituen beste langile bat hasiko da lanean.

Kontratazioaren aldiari dagokionez, dirulaguntzari ekin zion pertsonaren kontratazio-aldiari gehituta, dirulaguntzaren zenbatekoaren arabera ezarri zen

epea iritsi arte luzatuko da. Kasu horietan, dirulaguntzak ez du hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa gaindituko, deialdi honetako ezarritakoari jarraikiz.

Ordezkapena egiteko gehieneko epea 30 eguneko izango da.

Hasieran kontratatutako pertsona epe horren barruan ordeztu ezean enpresak kontratuaren iraupenari dagokion dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko du, bete gabe geratzen den luzapena ere aintzat hartuta.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak enpresari egotzi ahal bazaizkio, ordea, enpresak jasotako dirulaguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko du.

Kontratua subrogatuz gero, enpresak subrogatutako kontratuaren iraupenari dagokion dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko du. Kontratuen hasierako baldintzak ezin izango dira aldatu diruz lagungarria den epeak irauten duen bitartean, lanaldia luzatzen den kasuetan izan ezik.

B) Behin-behineko kontratuak, 6 hilabetekoak eta lanaldi osoan, aurreikusi ezin diren ekoizpen-inguruabarrengatik

Zenbatekoak:

— **7.000,00 euro** lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko (gutxienez, 2 urtez egon beharko du enpresan).

— **2.500,00 euro** aurreikusi ezin diren ekoizpen-inguruabarrengatik egiten diren behin-behineko kontratu bakoitzeko, 6 hilabetekoa eta lanaldi osoan.

Era berean, enplegatzaile bakar batek jaso dezakeen gehieneko diru-muga 16.500 euro izango da.

Enpresak jaso beharreko laguntzaren azken diru-kopuruak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonen soldaten eta Gizarte Segurantzaren kostuen % 75.

Lanaldi partzialeko kontratazioen kasuan, lan egiten den lanaldiaren araberrako dirulaguntza emango da.

DISKRIMINAZIO POSITIBOA:

Zenbateko horiek % 10 handituko dira, kontratua hasteko unean kontratatutako pertsonak honako kolektibo hauetakoak baldin badira:

— 25 urtetik beherako pertsonak.

— Emakumeak.

— 55 urtetik gorako pertsonak.

— Iraupen luzeko langabeak (kontratazioaren aurreko 18 hilabeteetan gutxienez 12 hilabetez Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egon direnak).

— Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak.

— Unibertsitate-ikasketak bukatu dituzten pertsonak, egindako ikasketei lotutako eta beren kategoria profesionalarekin bat datorren lehenengo lana eskuratu dutenak.

Ehuneko horiek guztiak metagarriak izango dira, baina kontratazio bakoitzeko gehieneko kopurua % 20 izango da.

Dirulaguntzaren zenbateko osoa % 20 igoko da, egoitza soziala eta fiskala Güeñesen dituzten enpresek egindako kontratuen kasuetan. (aurreko % 20ari metagarria).

1.8. Eskabideak aurkezteko epea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu, eta hurrengo egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta 25241471020 deritzon aurrekontu-partidan dagoen 20.000,00 euroko kreditua agortzen denean amaituko da.

Nolanahi ere, eskaerak aurkezteko epea 2025ko azaroaren 30ean amaituko da.

1.9. Ebazpena

Udalak eskabideak ebatziko ditu udalaren Sarrera Erregistroan jasotzen diren hurrenkera berean, betiere eskatutako agiri guztiak aurkezten badira. Agiri osagarriak aurkezteko eskaera eginez gero, eskaera bete deneko data hartuko da sarrera-datatzat.

Alkatetzaren ebazpenen bitartez emateari edo ukatzeari buruzko erabakiak hartuko dira.

Eskaerak ebazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, eskaera osorik eta behar bezala aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Hala ere, epea amaituta ebazpenik eman ezean, eskatzaileak ulertu beharko du eskaera ez dela onartu.

Dirulaguntzen deialdi honetarako kontsignatutako zenbatekoa agortu ondoren, aurkeztutako eskaerak baztertuko dira.

1.10. Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea

Dirulaguntza hori honela ordainduko da:

- Kontratu mugagabeak: Lehenengo ordainketa (dirulaguntzaren % 50) kontratua hasi eta 6 hilabetera egingo da, eta bigarrena (gainerako % 50a) justifikatzen denetik kontratuaren 24 hilabete igaro ondoren.
- Sei hilabeteko behin-behineko kontratuak: Lehenengo ordainketa (dirulaguntzaren % 50) laguntza ematen denean egingo da, eta bigarrena (gainerako % 50a) justifikatu eta 6 hilabete geroago.

1.11. Dirulaguntzen arteko lehia eta bateraezintasuna

Kontratazioa sustatzeko dirulaguntza hauek bateraezinak dira tokiko administrazio honek edo beste administrazio publiko batek ematen duen enplegua sustatzeko beste edozein dirulaguntzarekin, zerga-arinketa edo Gizarte Segurantzaren kuoten kenkariekin izan ezik, azkenak izaera orokorrean eta enplegua sustatzeko neurri gisa ezarri baititu Estatuko Administrazio Orokorrak.

1.12. LAGUNTZAK ESKATZEKO EGINTZAN ENPRESAK AURKEZTU BEHARREKO DERRIGORREZKO DOKUMENTAZIOA

a) Dirulaguntzaren eskaeraren eredu normalizatua, 1. lerroa: Besteren konturako langabeak kontratatzeako laguntzak (1. orrialdetik 5. orrialdera).

b) Enpresari buruzko dokumentazioa:

- Eskatzailea pertsona fisiko bat bada: Nortasun agiri nazionalaren fotokopia.
- Pertsona juridikoen kasuan: Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, nortasun agiri nazionalarekin eta eskatzailearen ordezkaritza-ahalekin batera, bai eta enpresa edo entitatea eratzeko eskrituren fotokopia ere, eta ondorengo aldaketak eta dagozkion erregistroetako inskripzioa.
- Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigarlatutako kontratu pribatua gehituko da.
- Foru Ogasunak emandako ekonomia-jardueren gaineko zergan egindako alteen eta bajeen gaineko egiaztagiria.
- Enpresak edo erakundeak Gizarte Segurantzaren alta eman izanaren kopia.
- Dirulaguntza eskatu duen erakundeak bere zerga-betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Foru Ogasunaren agiri eguneratua.

- Entitateak betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua.
- Gizarte Segurantzak kontratazioaren egunaren aurreko hiru hilabeteetan enpresan alta emanda dauden langileen batez besteko plantillari buruz emandako txostena.
- Gizarte Segurantzak kontratazioaren egunean enpresan alta emanda dauden langileen batez besteko plantillari buruz emandako txostena.
- Autonomo edo enpresa eskatzailearen kotizazioaren kontuko kodearen lan-bizitzaren txostena.

c) Kontratazioari buruzko dokumentazioa:

- Kontratuaren xede den pertsonaren NANaren kopia.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak zigilatutako lan-kontratuaren kopia edo dirulaguntzaren xede den kontratazioa Enplegu Publikoaren Zerbitzuaren bulegoari jakinarazi zaiolako agiriaren kopia.
- Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean kontratatutako pertsonaren altaren kopia.
- Kontratatutako lan-bizitzaren txosten eguneratua.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda egon den aldien txostena, non lanik gabe zegoela eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda zegoela egiaztatzen den.

LEHENENGO ETA BIGARREN ORDAINKETAK JUSTIFIKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Ordaintzeko epea (Behin-behineko kontratuak – derrigorrezkoa) / (kontratu mugagabeak – aukerakoa)

Kontratua hasi eta sei hilabetera aurkeztu beharko da. Epea: hilabete.

- a) Lehenengo sei hilabeteetan diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia.
 - b) Ordainketaren banku-ordainagiria, a) apartatuko nominen ordainketei dagozkienak. (Ez dira eskudirutan egindako ordainketak onartuko).
 - c) Dirulaguntza eskatu duen erakundeak bere zerga-betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Foru Ogasunaren agiri eguneratua.
 - d) Erakundeak betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua.
- Kontratu mugagabeak ordainketaren lehenengo epean justifikatzen ez dituzten enpresek justifikazio global bat egin beharko dute kontratua amaitzen denean. Epea: hilabete.

2. Ordaintzeko epea (bakarrik kontratu mugagabeetarako)

2. ordainketaren azken justifikazioa diruz lagundutako kontratua amaitzen denean egingo da. Epea: hilabete.

- a) Lehenengo hemezortzi hilabeteetan diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia
- b) Ordainketaren banku-ordainagiria, a) apartatuko nominen ordainketei dagozkienak. (Ez dira eskudirutan egindako ordainketak onartuko).
- c) Dirulaguntza eskatu duen erakundeak bere zerga-betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Foru Ogasunaren agiri eguneratua.
- d) Erakundeak betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua.

e) Kontratazioari dagozkion kotizazioen eta TC2ren likidazioaren ordainagiriak.
Justifikatzeko, banku-erakunde baten bitartez egindako nominen ordainketak
baino ez dira kontuan hartuko.

LANGABEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

Izen-abizenak	NAN:
Enpresa edo entitatearen sozietate-izena: Honen ordezkartzan:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Gueñesko Udalak Gueñesko udalerrian lana sortzea sustatzeko helburuarekin onetsitako laguntzen deialdiarekin bat etorriz,

HONAKO HAU ADIERAZI DU:

1. Ezagutzen eta onartzen ditu aipatutako laguntzen deialdian ezarritako baldintzak eta betebeharrak, eta egiaztatzen du enpresak edo entitateak eskaera-formularioetan jarritako datuak egiazkoak direla.
2. Langabetu bat edo batzuk kontratatu ditu, oinarrietan ezarritako baldintzen arabera.
3. Entitate honek bost urtez izango du jasotako dirulaguntzaren kargura egindako gastuak eta ordainketak egiaztatzen duen dokumentazioa, dokumentu elektronikoak barne, dagokion administrazioaren egiaztatze- eta kontrol-jarduketan xede izan daitekeen bitartean.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ESKATZEN DIO GUEÑESKO UDALARI:

Onartu dezala eskaera eta eman dakiola dagokion laguntza, goian zehaztutako laguntzen deialdiari jarraikiz.

Gueñesen, 202_(e)ko _____aren ____ (e)an.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

1. orrialdea

--	--	--	--

2. orrialdea

HIRUGARRENEN ALTA-DOKUMENTUA

Izena eta bi abizen/Sozietate-izena:	NAN/AIZ/IFZ:	
Helbidea		
Udalerria	Posta-kodea	Probintzia
Telefonoa	Helbide elektronikoa	

Dirulaguntza aurrezki-kontu korrante honetan sartzeko eskatu du:

Izena eta bi abizen/Sozietate-izena:	NAN/AIZ/IFZ:	
Helbidea		
Udalerria	Posta-kodea	Probintzia
Telefonoa	Helbide elektronikoa	

IBAN				Entitatea				Sukurtzala				KZ	Kontu-zenbakia													
Bankuaren oniritzia												Lege-ordez kariaren sinadura eta enpresa edo entitatearen zigilua														
Zigilua eta sinadura																										

Gueñesen, 202_(e)ko _____aren ____ (e)an.

3. orrialdea

ZINPEKO ADIERAZPENA

Izen-abizenak	NAN:
Enpresa edo entitatearen sozietate-izena: Honen ordezkartzan:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Zinpeko adierazpen hau egin du:

- Ezagutzen eta onartzen ditu Gueñesko langabeak kontratatzeko laguntzei dagozkien deialdiaren oinarriak.
- Dirulaguntza eskatzeko arrazoi den kontratua sinatu aurreko 12 hilabeteetan ez du kontratu mugagaberik desegin.
- Ez dago dirulaguntza publikoak itzultzeko prozeduretan edo horri lotutako zehapen-prozeduretan.
- Ez du dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu zigor- edo administrazio-bidetik zehatuta egoteagatik, eta ez diote horretarako gaitasuna legez debekatu, sexu-bereizkeriari lotutako diskriminazioagatik gertatutakoak barne hartuta, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraikiz.
- "Minimis" araua betetzen du Europar Batzordeak 2006ko abenduaren 15ean emandako 1998/2006 (EE) Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, zeina Minimis Laguntzen Itunaren 2006ko abenduaren 28ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta 69/2001 (EE) Erregelamendua ordezkatzan duen, bai eta horren ondorengo berrikuspenak ere.
- Laguntza-eskaera honez gain, honako erakunde publikoen edo pribatuen laguntzak jaso ditu kontratazio bera egiteko:

Eskaera-data	Erakundea	Programa	Zenbatekoa	Laguntza

- Era berean, konpromisoa hartzen du idatziz erakunde honi jakinarazteko beste entitate publiko edo pribatu batzuei kontratazio bererako dirulaguntza-eskaerak egiten badizkie.
- Nire datu pertsonalen tratamendua irakurri izana eta onartzea, oinarritzko informazioaren arabera.

Eta dagokion lekuan jasota gera dadin, honako hau sinatu du

Gueñesen, 202_(e)ko _____aren ____ (e)an.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

4. orrialdea

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA KONPROMISOA

Izen-abizenak	NAN:
Enpresa edo entitatearen sozietate-izena: Honen ordezkaritza:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Honako erantzukizunpeko adierazpen hau egin du

- Kontratazioak ez du 1.5. oinarrian jasotako bateraezintasunerako edo bazterketarako arrazoirik.

Honako konpromiso hau hartu du:

- Indarrean dagoen lan-araudia eta lan-arriskuak prebenitzeko araudia betetzeko konpromisoa.
- Kontratututako pertsonari zereginak egiteko beharrezkoak dituen materialak eta arropa emateko konpromisoa

Eta dagokion lekuan jasota gera dadin, honako hau sinatu du

Gueñesen, 202_(e)ko _____aren ____ (e)an.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren edo entitatearen zigilua

2. LERROA

GUEÑESKO UDALERRIAN ENPRESA-PROIEKTUAK INSTALATZEKO LAGUNTZAK 2025

Oinarri hauek dirulaguntza horien esparru orokorra arautzen dute.

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea honako hauek arautzea da:

Enpresa-proiektuak instalatzea diruz laguntzeko funts galduko laguntzak ematea. Proiektuen pertsona eta enpresa sustatzaileek oinarri hauetako 2. eta 3. puntuetan ezarritako betekizunak bete behar dituzte.

1.1 - Aurrekontua

Aurrekontua 30.000,00 eurokoa izango da, 25.241.471.000 partidaren kargura.

2. – KONTRATATUKO DIREN PERTSONEK ETA EKINTZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Enpresa-proiektu berriak sustatzen dituzten pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

2.a) Enpresa-proiektu berriaren sustatzaileetako batek, gutxienez, GUEÑESen erroldatuta egon beharko du 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen, eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta eman aurretik.

2.b) Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren tarifen talde bereko jarduerarik egin ez izana GUEÑES udalerrian, alta eman aurreko urte eta erdian. Baldintza hori eskatzaileari zein bigarren mailarainoko odolkidetasuna edo harremana duten edo bizikidetzaren unitate bera osatzen duten pertsonak dagokie, belaunaldi-ordezkapena gertatu denean salbu, eta derrigorrez bete behar dute inolako salbuespenik gabe. Aldez aurretik beste udalerririk batzuetan existitzen diren enpresen kasuan, baldin eta egoitza soziala eta lan-zentroa Gueñesko udalerrira aldatzen badute, 2.b) puntuko betekizuna bete beharko dute, eta, gainera, jarduera, gutxienez, 3 urtez mantendu beharko dute. Bigarren zatia egoitza soziala Gueñesko udalerrira aldatu eta hiru urte horiek igaro ondoren ordainduko zaie (036 ereduaren jaso).

2.a) apartatuko betekizunetako bat edo biak bete ezean, dirulaguntzaren onuradun izateko aukera ezarriko da, baina, horretarako, jarduerari eutsi beharko dio gutxienez 2 urtez.

3. – DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROIEKTUEN BETEKIZUNAK.

Edozein enpresa-egitasmok izango du aukera Gueñesko udalerrian enpresa-proiektuak instalatzeko laguntza jasotzeko, enpresaren eraketak hartzen duen forma juridikoa edozein izanda ere, ekonomia-jardueren gaineko zergaren alta **2024ko abenduaren 1etik 2025ko azaroaren 30era** bitartean egin bada, betiere, ekonomia-jarduera bat ekarriko duen enpresa edo proiektu bat sortzen bada eta oinarrien 2. atalean zehaztutako baldintzak betetzen badira.

4.- LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Itzuli behar ez den dirulaguntza bat emango da, gehienez ere 3.000 eurokoa, sortzen diren enpresak martxan jartzeko eta inbertsioak egiteko gastuak finantzatzeko. Enpresa berri horien egoitza soziala eta gutxienez lantoki bat Gueñesen egongo dira, eta proiektu bakarrak jaso ahal izango du dirulaguntza, proiektu horren forma juridikoa edozein delarik ere.

4.1- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN INSTALAZIOEN GASTUAK:

Hona hemen diruz lagun daitezkeen instalazio-gastutzat jo daitezkeenak:

- Negozioa egongo den lokalaren errentamendua, betiere, diruz lagundutako haztegi batean instalatzen ez.
- Jardueraren lehenengo urteko autonomo-kuotak.
- Lekualdaketaren gastuak;

Gehienez ere, Gueñesko udalerriko enpresa-jardueren gaineko zergaren alta eman eta urtebetez sortutako gastuak izango dira.

4.2.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN INBERTSIOAK:

Inbertsio gisa, ibilgetua osatzen duten honako elementu hauek lagundu ahal izango dira, Kontabilitate Plan Orokorrari jarraikiz:

2.0.6. Informatika-aplikazioak

2.1.1. Eraikuntzak (higiezinaren erosketa eta eraikuntza izan ezik)

2.1.2 Instalazio teknikoak

2.1.3 Makinak

2.1.4. Tresneria

2.1.5. Bestelako instalazioak

2.1.6. Altzariak

2.1.7. Informazio-prozesuetarako ekipamenduak

2.1.8. Garraio-elementuak (industriakotzat edo mistotzat sailkatutako ibilgailuetarako baino ez)

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aintzat hartuko da inbertsioak erosteko balioa, BEZa kenduta.

Elementu berrien nahiz erabilitakoen inbertsiotzat hauexek hartuko dira:

- lotura zuzena izango dute enpresaren xede soziala den jarduerarekin.
- ezingo zaizkie hirugarrenei eman, kontraprestazioarekin edo gabe.
- ez dira enpresa eskatzaileak berak fabrikatuak izango.

Inbertsio horiek, gehienez ere, urtebeteko epean sortu behar izan dira, gehienez ere, Gueñesko udalerrian ekonomia-jardueren gaineko zergan alta ematen den unetik aurrera zenbatzen hasita.

5.- **BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA**

Deialdi honetan araututako laguntzak BATERAGARRIAK IZANGO DIRA erakunde publikoek edo pribatuak ematen dituzten eta kontzeptu berberak diruz laguntzeko balio duten bestelako dirulaguntzekin, gastuen eta inbertsioen gehiegizko finantzaketarik ez dagoen heinean.

Programa honetan ezarritako laguntzek edo dirulaguntzek 2006ko abenduaren 15eko Batzordearen 1998/2006 Araudian (EB) xedatutakoa beteko dute (2006ko abenduaren 28an argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean), Europako Erkidegoa eratzekeko Tratatuaren 87. eta 88. artikulua *minimis* laguntzei aplikatzeari dagokionez, bai eta aurrerago egiten diren aldaketak ere.

Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa jakin bati ematen zaion *minimis* laguntza osoa ezin izango da izan 200.000 euro baino gehiagokoa, 3 zerga ekitalditan zehar. Muga hori *minimis* laguntza-modua edo lortu nahi den helburua edozein izanik ere aplikatuko da. Muga hori gainditzen bada, programa honen arabera emandako laguntza gutxiagotu egingo da, zehazki, gehiegizko zenbatekoari dagokion kopuruan.

6.- **AURREKONTUAREN ERABILGARRITASUNA, ESKAERA-EPEA ETA LEHENTASUNA.**

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak "Enpleguaren Sustapena. Gueñesko ekintzaileentzako laguntzak" deritzon 2541471010 partidaren kargura finantzatuko dira, zeinak 2025. urterako onetsitako aurrekontuan jasoko diren. Zenbatekoa: 30.000,00 €.

Laguntza-eskaerak ebazteko, ESKAERAK ERREGISTRATU ZIRENEKO HURRENKERA ZORROTZA hartuko da kontuan, BAINA ESKAERA EZ DA TXOSTENA EGITEKO BEHIN BETIKOTZAT JOKO DOKUMENTAZIO GUZTIA JASO DELA EGIAZTATU ARTE, eta aurrekontuetan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituaren mugaraino onartuko dira.

7.- ESKAERAK AURKEZTEA

Eskaerak eta horiekin batera aurkeztu beharreko agiriak GUEÑESKO UDALAREN ERREGISTROAN AURKEZTU BEHARKO DIRA EDO, GUEÑESKO UDALAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAREN BITARTEZ www.gueñes.eus.

Dirulaguntzen deialdia indarrean sartuko da laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta 2025ko azaroaren 30ean amaituko da.

Eskaeren aurkezpenari dagokionez, aintzat hartuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 16.4 artikulua xedatzen duena.

Eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea ekarriko du.

8.- 2025. URTEAN GUEÑESKO UDALERRIAN ENPRESA-PROIEKTUAK INSTALTZEKO LAGUNTZAK ESKATZEN DITUZTEN ENPRESEI EDO NEGOZIOEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA:

Laguntza-eskaerak Eskaera-eredu Normalizatuan aurkeztuko dira (deialdi honen eranskinean jaso da), eta enpresaren edo erakundearen ordezkariak sinatuko ditu. Orobat, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

ESKAERA EGITEKO NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA:

a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionalaren jatorrizkoa edo konpultsatutako kopia.

Pertsona juridikoen kasuan: Informazio Fiskalaren Txartelaren jatorrizkoa edo konpultsatutako kopia, eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalarekin eta ordezkari-tza-ahalmenaren egiaztagiriarekin batera.

b) Pertsona juridikoak badira, erakundea edo enpresa eratzeko eskrituren agiri originala edo kopia erkatua (ondoren izandako aldaketekin) eta dagozkion erregistroetako inskripzioak.

Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigitatutako kontratu pribatua gehituko da.

c) Ekonomia-jardueren gaineko zergan emandako altak eta bajak adierazten dituen ziurtagiri originala edo kopia erkatua, Foru Ogasunak emandakoa.

d) Enpresak edo erakundeak Gizarte Segurantzaren emandako altaren agiri originala edo kopia erkatua.

e) Dirulaguntza eskatu duen entitateak bere zerga-betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Foru Ogasunaren agiri originala edo kopia erkatua.

f) Erakundeak bere betebeharrak eguneratuta dauzkala frogatzen duen Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren agiri originala edo kopia erkatua, eguneratua.

g) Zinpeko aitortpen originala (eskaera-eredu normalizatua). Honako hauek

jasotzen dituen aitorten bakarra da:

- Eskatzaileak honako laguntza-deialdi honen oinarriak ezagutzen eta onartzen dituelako adierazpena.
- Dirulaguntza publikoak direla eta, eskatzailea itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren baten eraginpean ez dagoelako jatorrizko zinpeko aitortpena.
- Erakunde eskatzailea dirulaguntza edo laguntza publikoak ezin jasotzea ekarri dion zigor- edo administrazio-zehapenen baten eraginpean ez dagoelako jatorrizko zinpeko aitortpena; era berean, dirulaguntzak jasotzeko legezko debekurik ezarrita ez duelako zinpeko aitortpena, Emakume eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritakoari jarraikiz, sexu-bereizkeriagatik jasandako debekuak ere aintzat hartuta.
- Jarduera berberaren xedea betetzeko, beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatu edo erakunde horietatik jasotako laguntzei buruzko jatorrizko zinpeko aitortpena.
- *Minimis* araua beteko delako jatorrizko zinpeko aitortpena, Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 (EB) Araudiak ezarritakoari jarraikiz. Aipatutako araudia, *Minimis* Laguntzen Itunaren gainekoa, 2006ko abenduaren 28ko Europako Batzordearen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta 69/2001 araudia (EB) eta ondoko berrikuspenak ordeztu zituen.

h) Hirugarrenen izen-ematearen agiri originala edo kopia erkatua, erakunde eskatzaileak eta banku-erakundeak sinatua eta zigilatua (laguntza helbideratzeko banku-datuen inprimakia – eskaera-eredu normalizatua).

i) Foru Ogasunean EJZn (ekonomia-jardueren gaineko zerga- 036 eredua) alta eman izanaren agiriaren kopia.

j) Gueñesen enpresak instalatzeko sustatzaileek negozio-plan bat egin eta aurkeztu beharko dute, zeina Enkarterriko Behargintzak zuzenduko edo onetsiko duen.

k) Gueñesen enpresak instalatzeko sustatzaileek 30 orduko ikastaro bat egin behar dute Enkarterriko Behargintzarekin, eta ikastaroa egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Honako eduki hauen ezagutza eskaintzea da prestakuntzaren xedea:

- Negozioa, forma juridikoa, lege-izapideak, baimenak eta lizentziak, bai eta lan-arriskuak eta ingurumen-arriskuak ere.
- Kobratzeko eta ordaintzeko kudeaketa-tresnak eta finantzaketa, eta laguntzak.
- Tributazioa.

Urteko azken hiruhilekoan aurkeztzen diren eskaeren kasuan, hala badagokio, hurrengo urteko lehenengo hiruhilekoan aurkeztu ahal izango da bideragarritasun-plana, betiere, eskaerarekin batera Behargintzako Tokiko Garapenerako eta Ekintzailatzeko arduradun teknikoak sinatutako ziurtagiria aurkeztzen bada, non entitatea proiektuaren tutoretzaz arduratzen dela jaso beharko den.

c), d), e) f) eta i) ataletan zehaztutako dokumentuak ez ditu interesdunak aurkeztuko, betiere, udalak berak jasotzeko baimena eman badu.

Kontrakotasuna espreski adierazten ez bada, uste izango da baimena eman dela dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratzeko.

Eskatzaileak aitorten bateratuan jasotako datuen bat faltsutuz gero, baliteke bere aurkako zehapen-prozedura hastea.

Dirulaguntzaren eskatzaileak ez du zorrik izango Gueñesko Udalarekin. Egoera hori ofizioz egiaztatuko dute udaleko kontu-hartzailetza zerbitzuek.

9.- **AKATSAK ZUZENTZEA**

Dirulaguntzaren eskaerak deialdi honetan eskatutako baldintzak bete ezean, edo eskatutako dokumentazioa eransten ez bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (urriaren 1eko 39/2015) bere 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 10 egun balioduneko epean akatsak zuzentzeko edo derrigorrezko dokumentuak eransteko eskatuko zaie interesdunei. Era berean, jakinaraziko zaie eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela eta artxibatu egingo dela inolako izapiderik gabe, legezko testu beraren 42.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Ez da eskabidea aurkeztutzat hartuko behar bezala beteta eta espedientea osorik egon arte (6. eta 7. artikulua).

10.- **ESKAERAK AZTERTZEA ETA EBALUATZEA**

Tokiko Garapenerako eta Ekintzailertzako teknikaria arduraduko da aurkeztutako eskaeren azterketa eta ebaluazioa egiteaz, eta eskaera guztien inguruko txosten bat egingo du.

Gueñesko Udaleko Gizarte Ekintza eta Enplegua Batzordean emango da txosten horien berri, eta batzordeak Tokiko Gobernu Batzarrari helaraziko dizkio gero.

11.- **LAGUNTZA EMATEKO EBAZPENA**

Aurreko atalean aipatutako proposamena ikusita, GUEÑESKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK ebazpena emango du.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 25. artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, ebazpena emateko aurreikusitako gehieneko epea, 6 hilabete, igaro ondoren, enpresa edo erakunde interesdunari jakinarazpenik egin ez bazaio, eskatutako laguntzan atzera egin dela ulertuko da.

Onuradun izateko deialdian ezarritako baldintzei dagokienez, berriz, baldintza guztiak bete arren kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu dela-eta kontuan hartu ez diren eskabideen zerrenda ere ebazpenean jaso beharko da, Dirulaguntzei buruzko Araudiaren (887/2006 ED) 63.3 artikuluari jarraikiz. Erabaki berri baten bidez, beste dirulaguntza batzuk eman ahal izango dira ezetsitako eskaera horien zerrendako lehentasun-ordenari jarraituz, betiere onuradun batek berariaz uko egiteagatik eskatutako kreditua agortu arte.

Horretarako, berariazko uko egitetzat hartuko da oinarri hauetan ezarritako edozein baldintza ez betetzea.

12.- **ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

12.1. Laguntza hauek jasotzen dituzten enpresa, profesional edo erakunde onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, onartutzat joko da, baldin eta hamabost eguneko epean, dirulaguntza ematen dela jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita, erakunde onuradunak berariaz eta idatziz uko egiten ez badu.

b) Gueñesko Udalak edo edozein kontrol-organo eskudunek (nazionalak zein erkidegokoek) egin ditzaketen egiaztatze-jarduerak eta finantza-kontrolak onartzea. Horretarako, arestian aipatutako jarduerak gauzatzean eskatzen den behar besteko informazioa eman beharko da.

c) Kontularitza-liburuak behar bezala beteta eta erregistroak eraz izapidetuta edukitzea, eta hala badagokio, gainerako agiriak eraz ikuskatuta edukitzea, onuradunari eskatu ahal zaion merkataritza eta arloko legeriak ezarritako baldintzei jarraiki. Halaber, laguntzen oinarri arau-emaileak ezartzen dituen kontularitzako egoera-orri eta berariazko erregistro guztiak aurkezteko moduan eduki beharko ditu, egiaztatze- eta kontrol-jarduerak egoki gauza daitezen bermatzearen.

d) Gueñesko Udalari jakinaraztea bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu izana, laguntzen xede diren jarduerak finantzatzeko. Jakinarazpen hori idatziz egin behar da, ebazpenaren berri izan eta hurrengo hamar egunetan.

e) Gueñesko Udalari hauen berri ematea: dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintzaren aldaketa, objektiboa zein subjektiboa izan.

f) Gueñesko Udalari ematea laguntza-eskaera ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio edo dokumentazio osagarria.

g) Hartutako funtsak itzultzea, xedatutakoak bete ezean, honako deialdi honek ezarritakoari jarraikiz.

i) **Enpresak altan egon beharko du dirulaguntzaren prozesua amaitu arte**, salbu eta arrazoi objektibo eta justifikatuen bitartez justifikatzen bada aldez aurretik ixtea. Tokiko Garapena eta Ekintzailetzako teknikariaren txosten baten bitartez baloratuko da hori, eta, kasu horretan, Gizarte Segurantzaren erregimenean altan egon den hilabeteen artean hainbanatuko da laguntza.

13.- IKUSKARITZA.

Gueñesko Udalak diruz lagundutako jardueren inguruan egoki iritzitako ikuskapen eta egiaztapenak egin ditzake, eta enpresa edo erakunde onuradunek eskatutako informazio osagarria eman beharko dute.

14.- GUEÑESKO UDALERRIAN 2025. URTEAN ENPRESA-PROIEKTUAK INSTALATZEKO LAGUNTZAK DITUZTEN ENPRESA EDO NEGOZIOETARAKO ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

1. mota- Gueñesko udalerrian enpresa edo negozio SORTU BERRIAK instalatzeko emandako dirulaguntza ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman eta jarraian 2a)apartatuko betekizuna betetzen dituztenen kasuan

Dirulaguntza bi alditan ordainduko da:

- Dirulaguntzaren % 50eko lehenengo ordainketa egingo da (1,500€), dirulaguntza onesten denean.

- Bigarren ordainketan, dirulaguntzaren gainerako % 50 (1.500 euro) ordainduko da, jarduera hasi eta urtebete igaro ondoren eta justifikatzen denean.

2. mota- SORTU BERRI diren enpresa eta negozioak instalatzeko ematen diren laguntzak, baina ez dutenak ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman eta jarraian 2a)apartatuko betekizuna beteko, baina bai 2b) apartatuan aurreikusitakoa):

Dirulaguntza bi alditan ordainduko da:

% 50eko lehenengo ordainketa egingo da (1,500€) dirulaguntza onesten duenean Bigarren ordainketan dirulaguntzaren gainerako % 50a (1.500 euro) ordainduko da, jarduera hasi eta **BI URTE IGAROTZEN DIRENEAN** eta justifikatu ondoren.

3. mota- SORTU BERRI EZ DIREN abaina Gueñesko udalerrian instalatzen diren enpresei emandako dirulaguntzak, zeinak ekonomia-jardueren

gaineko zergan enpresaren egoitza soziala Gueñesera aldatzen dutenean ez duten 2.a) apartatuko betekizunak betetzen, baina 2b) apartatuan aurreikusitakoaren barruan dauden.

Dirulaguntza bi alditan ordainduko da

% 50eko lehenengo ordainketa egingo da (1,500€) dirulaguntza onesten duenean Bigarren ordainketan dirulaguntzaren gainerako % 50a (1.500 euro) ordainduko da, jarduera hasi eta **HIRU URTE IGAROTZEN DIRENEAN** eta justifikatu

TASAREN ARABERAKO JUSTIFIKAZIO-EPEAK:

1. mota- Justifikazioa Gueñesko Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dute edo Gueñesko Udalaren egoitza elektronikoan (www.gueñes.eus). Bertan, jarraian zerrendatu den dokumentazioa aurkeztu beharko dute **enpresa ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman denetik URTEBETE igaro delako.**

2. mota – Justifikazioa Gueñesko Udalaren erregistroan edo Gueñesko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez www.gueñes.eus aurkeztu beharko dute. Bertan, jarraian zerrendatu den dokumentazioa aurkeztu beharko dute **enpresa ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman denetik BI URTE igaro direlako.**

3. mota- Justifikazioa Gueñesko Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dute edo Gueñesko Udalaren egoitza elektronikoan (www.gueñes.eus). Bertan, jarraian zerrendatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute **enpresa ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman denetik HIRU URTE igaro direlako.**

JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIOA:

- a) Jarduerak alta emanda jarraitzen duelako jatorrizko agiria edo konpultsatutako kopia (ekonomia-jardueren gaineko zergan emandako alden eta baje egiaztagiria
- b) Gizarte Segurantzaren oinarrien eta kuoten ziurtagiriaren jatorrizkoa edo kopia konpultsatua edo, hala badagokio, eskatzailearen edo bazkide eskatzaileen Gizarte Segurantzako autonomoen araubidearen ordainagiri guztiak, baldin eta dirulaguntza eskatzen dute sozietatearen barruan bazkide autonomo bat baino gehiago badago mota bakoitzean dagokion epean urte 1, 2 edo 3, atxikita dauden motaren arabera.
- c) Dirulaguntzaren xede diren gastu eta inbertsioen jatorrizko fakturak edo konpultsatutako kopiak. Horien guztizko zenbatekoak, gutxienez, 3.000 eurokoa izan behar du, zergak kontuan hartu gabe.
- d) Dirulaguntzari dagozkion eta aurkeztu diren gastu zein inbertsioen fakturen ordainagiriak.

Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta eman denetik urte 1, 2 edo 3 igaro diren kasu guztietan justifikatzeko epea bete direnetik hiru hilabete igaro eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, hasieran emandako zenbatekoa itzultzeko eskatuko da.

Eskatzaileak aitortzen bateratuan jasotako datuen bat faltsutuz gero, baliteke bere aurkako zehapen-prozedura hastea.

Enpresa-proiektuaren sustatzaileraren batek ez baditu dirulaguntzaren 3.000 euroak guztiz justifikatzen, baina eskaera onartzean ordaindu ziren 1.500 euroak baino gehiago justifikatu baditu, bigarren ordainketa hainbanatu egingo da, sustatzaileak justifikatzen duen guztizkoaren ehunekoaren arabera.

Sustatzaile batek 1.500 euro baino gutxiago justifikatzen baditu, dirulaguntza

ematean ordaindu zitzaizkion 1.500 euroak itzuli beharko ditu.

15.- DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA.

Aurkezpen-epea amaituta eta behin eskaera guztiak ebatzita, eman diren dirulaguntzen zerrenda argitaratuko da Gueñesko Udaleko iragarki-taulan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak bere 18. artikuluan eta aipatu Legea onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 ERREGE DEKRETUAK, zeinaren bitartez Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onetsi den, bere 30. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta deialdi honen 11. artikuluan zehaztutako betez.

16.- DIRULAGUNTZA EMATEKO BALDINTZEN ALDAKETA.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, laguntza emateko ebazpena ere aldatu ahal izango da, betiere honako oinarri hauek laguntzaren onuradun izateko ezartzen dituzten gutxieneko baldintzei eusten bazaie. Horretarako, Gueñesko Udalak aldatzeko ebazpena egingo du, eta horrek berriro doituko ditu emandako dirulaguntzen zenbatekoak.

17.- LAGUNTZAK ITZULTZEA.

Jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, dirulaguntzak ordaindu zirenez geroztik bidezkoak diren legezko interesekin batera, erakunde onuradunek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte. Baldintzok esleipen-ebazpenean eta aplika daitezkeen bestelako arauetan daude jasota. Hori guztia arau-hauste horren ondorioz sor daitezkeen bestelako ekintzetan eraginik sortu gabe.

Honako hauek izango dira itzultzeko arrazoiak:

- Dirulaguntza ezarritako baldintzak bete gabe lortzea.
- Dirulaguntzaren xedea ez betetzea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- Emakida dela eta, onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontrol-jarduerai uko egitea edo horiek eragozte.
- Hartutako dirulaguntzaren zenbatekoa garatutako jardueraren kostua baino handiagoa izatea

18.- ORDEZKO ARAUBIDEA.

Deialdi honetan aurreikusi ez diren kasuetarako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen Araudia ezarriko dira, baita Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea ere.

19.- DATU PERTSONALEN BABESA.

Gueñesko Udalak azaltzen du, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 3/2018 Lege Organikoarekin bat, eskatzaileen datu pertsonalek tratamendu automatizatu izan dezaketela eta Gueñesko Udaleko informazio-sistemetan eta haren erakunde autonomoetan bilduko direla.

Datu horiek udal-kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitakoa

gertatzen denean. Interesdunek datuak ikusi, kendu, zuzendu eta horien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte udalaren informazio- eta erregistro-zerbitzuaren bitartez.

Laguntzen programan parte hartzean, jakinarazitako datu pertsonalak administrazio publikoei edo Gueñesko Udalarekin lankidetzan ari diren erakundeei utz dakizkieke, eta zabalkunde orokorreko bitartekoetan ere argitara daitezke.

20.- BALIABIDE EKONOMIKOAK.

2025ko ekitaldian, gehienez ere 30.000,00 euro banatuko dira eskatzaileen artean, eta zenbateko hori 25241471010 partidaren pentzura finantzatuko da, 2025ko ekitaldirako onartu den Gueñesko Udalaren aurrekontuaren barruan.

AZKEN XEDAPENA

1. Dirulaguntzen deialdia indarrean sartuko da laburpena Bizkaiko ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Enpresa edo erakunde interesdunek eskaera aurkezteak oinarriak erabat onartzea dakar.

ENPRESAK EZARTZEA LAGUNTZETARAKO ESKAERA EREDU

NORMALIZATUA

MODELO DE SOLICITUD NORMALIZADO AYUDAS

IMPLANTACION DE EMPRESAS 2025

Izen-abizenak / Nombre-Apellidos:	NAN zk. / D.N.I.:
-----------------------------------	-------------------

Honen ordezkari gisa / En representación de:

Enpresaren edo erakundearen izen soziala / Razón social de la empresa o entidad:

Izen komertziala / Nombre comercial:	IFZ/IFK / N.I.F./C.I.F.:
--------------------------------------	--------------------------

Güeñes udalerrian enplegua sortzea sustatzeko
Güeñes ko Udalak onetsitako laguntzen deialdiarekin
bat,

Conforme a la convocatoria de ayudas aprobadas por el
Ayuntamiento de Güeñes con el objetivo de promover la
generación de empleo en el municipio de Güeñes

**ADIERAZTEN
DU:**

1. Ezagutu eta onartu egiten dituela aipatutako
laguntzen baldintza eta betebeharrak, eta egiaztatu egiten
du enpresak edo erakundeak eskabideetan emandako datuak
egiazkoak dire- la.

2. Güeñes udalerrian enpresa proiektu bat aurkezten
duela.

3. Jasotako diru-laguntzaren kargura eginiko gastu eta
ordainketen ziurtagiriak, hala badagokio dokumentu
elektroni- koak barne, erakunde onuradun horretan egongo
direla 2020. urtera arte, dagokion administrazioak egiaztatze
eta kontrol jar- duerak egin ahal izateko.

4. Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko
03/2018 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, onar-
tu egiten duela bere datuak Güeñesko Udalak laguntzak kudeatzeko
sortutako fitxategiko zati izatea. Datuotara sartzeko,
zuzentzeko, bertan behera uzteko edo aurka egiteko
eskubideak izango ditu, Güeñesko Udalaren informazio eta
erregistro zer- bitzuaren bidez.

Horregatik guztiagatik,

**GÜEÑESKO UDALARI HAU ESKATZEN
DIO:**

Bere eskaera onartu eta dagokion laguntza ematea,
ares- tian adierazitako laguntzen deialdiarekin bat.

Güeñesen, 2025ko aren(e)(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura
eta enpresa edo erakundearen zigilua

MANIFIESTA:

1. Que conoce y acepta las condiciones y obligaciones
establecidas en la convocatoria de las referidas ayudas y cer-
tifica la veracidad de los datos consignados por la empresa o
entidad en sus formularios de solicitud.

2. Que presenta un proyecto de empresa en el munici-
pio de Güeñes.

3. Que la documentación acreditativa de los gastos y pagos
efectuados con cargo a la subvención recibida, incluyendo en
su caso los documentos electrónicos, obrarán en poder de esta
entidad beneficiaria hasta el año 2020 en tanto puedan ser obje-
to de las actuaciones de comprobación y control de la Admi-
nistración correspondiente.

4. Que con objeto de dar cumplimiento a lo
establecido por la Ley Orgánica 3/2018, de Protección de
datos de carácter Personal, acepta que sus datos formen
parte del fichero que establezca el Ayuntamiento de Güeñes
para gestionar las ayudas y podrá ejercer sus derechos de acce-
so, rectificación, cancelación y oposición a través del servicio
de información y registro del Ayuntamiento de Güeñes

Por todo lo cual,

**SOLICITA AL AYUNTAMIENTO DE
GÜEÑES**

Sea aceptada su solicitud y se le conceda la ayuda que
corresponda conforme a la convocatoria de las ayudas arriba
indicadas.

En Güeñes, a de de 2025

Firma del/la representante legal
y sello de la empresa o entidad

Sarrera zigilua:

Sello de entrada:

**ENPRESA EDO ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA /
INFORMACIÓN RELATIVA A LA EMPRESA ENTIDAD**

Enpresaren edo erakundearen egoitza soziala / Domicilio social de la empresa o entidad:		
Kalea eta zk. / Calle y n.º:		
Udalerrria / Municipio:	PK / CP:	Telefono zenbakia / Teléfono:
E-posta / E-mail:	Faxa / Fax:	http://

Jakinarazteko moduari dagokionez (aukeratu):

- Posta elektronikoa (gomendatua). Ezinbestekoa da igorritako jakinarazpena jaso izanaren agiria egitea.
E-posta:

- Posta arrunta:
Izen-abizenak..... Helbidea
(kalea, zk., posta kodea eta udalerrria):
.....

Referente a la forma de notificación (elegir):

- Correo electrónico (recomendada). Siendo imprescindible realizar acuse de recibo de la notificación enviada.
E-mail:

- Correo ordinario:
Nombre y Apellidos: Dirección
(calle, n.º, código postal y municipio):
.....

Enpresaren jarduera / Actividad de la empresa:

Deskripzioa / Descripción:

JEZn alta eman den eguna / Fecha de Alta IAE

**BAZKIDEAK ETA
SUSTATZAILEAK/
SOCIOS Y PROMOTORES**

Izen-abizenak / Nombre-Apellidos:	NAN zk. / D.N.I.:

**INBERTSIOEN KOADROA, NON
INBERTITU DEN ZEHAZTUTA /
CUADRO DE INVERSIONES, DETALLANDO EN
QUE SE HA INVERTIDO**

Egindako inbertsioa / Inversión realizada: Kontzeptua / Concepto:	BEZik gabeko zenbatekoa / Importe sin IVA:
Guztira / Total	

**GASTUEN KOADROA, NON GASTATU
DEN ZEHAZTUTA /
CUADRO DE GASTOS, DETALLANDO EN QUE SE
HA GASTADO**

Egindako gastuak / Gastos realizados: Kontzeptua / Concepto:	BEZik gabeko zenbatekoa / Importe sin IVA:
Guztira / Total	

**HIRUGARRENEN ALTA DOKUMENTUA/
DOCUMENTO DE ALTA DE TERCEROS**

Izen-abizenak / Nombre-Apellidos:

NAN zk. / D.N.I.:

Honen ordezkari gisa / En representación de:

Enpresaren edo erakundearen izen soziala / Razón social de la empresa o entidad:

Izen komertziala / Nombre comercial:

IFZ/IFK / N.I.F./C.I.F.:

DIRU LAGUNTZA KONTU KORRONTE EDO AURREZKI KONTU HONETAN ORDAINTZEKO ESKATZEN
DU:

SOLICITA QUE SE ABONE LA SUBVENCIÓN EN LA SIGUIENTE CUENTA CORRIENTE-
AHORRO:

Kontuaren titularraren izen-abizenak / Nombre y apellidos del titular de la cuenta:

Bankua edo kutxa / Banco o caja

Sukurtsala / Sucursal:

Erakundearen kd Cod. Entidad	Sukurtsalaren. kd Cod. Sucursal	KZ D.C.	aurrezki- kontuaren zk. N.º cuenta corriente

Behean sinatzen duenak emandako datuen egiazkotasu-
naren erantzukizuna hartzen du.

Güñesen, 2025ko aren(e)(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura
eta enpresa edo erakundearen zigilua

El/la abajo firmante se hace plenamente responsable de
la veracidad de los datos consignados.

En Güñes, a de de 2025

Firma del/la representante legal
y sello de la empresa o entidad

Banku erakundearen sinadura eta zigilua

Firma y sello de la Entidad Bancar

**INPEKO AITORPENA
DECLARACIÓN JURADA**

Izen-abizenak / Nombre-Apellidos:	NAN zk./ D.N.I.:
-----------------------------------	------------------

Honen ordezkari gisa / :En representación de:

Enpresaren edo erakundearen izen soziala: Razón social de la empresa o entidad:

Izen komertziala / Nombre comercial:	IFZ/IFK / N.I.F / C.I.F.:
--------------------------------------	---------------------------

ZINPEKO AITORPEN HAU EGITEN DU:

- Ezagutu eta onartu egiten ditu "Güeñesko lan programa" Güeñesen. enplegua sustatzeko enpresetarako aparteko laguntzen programari dagokion deialdiko oinarriak.
- Ez dago diru-laguntza publikoak itzultzeko edo zehapeneko prozedura batean.
- Ez dago zehatuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin eta ez dago hartarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat.
- Minimis araua betetzen du, Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudiak (EE) ezarritakoa rekin bat. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2006ko abenduaren 28an, eta horren bidez ordezkatu zen 69/2001 Araudia (EE). Halaber, arauaren ondoko berrikuspenak betetzen dituela adierazten du.
- Laguntza-eskabide honetaz gain, honako organismo publiko edo pribatu hauen laguntzak eskatu edo jaso ditu, kontratazio honetarako:
- Halaber, hitzematen du organismo honi idatziz emango dio la beste organismo publiko edo pribatu batzuen aurrean kontratazio honetarako eska ditzakeen bestelako diru-laguntzen berri.

REALIZA LA SIGUIENTE DECLARACIÓN JURADA:

- Conocer y aceptar las bases de la convocatoria correspondiente al «Programa de empleo de Güeñes», programa de ayudas extraordinarias dirigidas a empresas y promotores para la promoción del empleo entre los vecinos de Güeñes»
- No hallarse incurso en procedimientos de reintegro o sancionadores de subvenciones públicas.
- No hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.
- Que cumple la regla de Minimis, conforme a lo que establece el Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión Europea, de 15 de diciembre de 2006, publicado en el DOCE de 28 de diciembre de 2006, del Tratado de la Ayudas de Minimis, que sustituye al reglamento (CE) 69/2001, así como sus posteriores revisiones.
- Que además de la presente solicitud de ayuda, ha solicitado o recibido ayudas para esta misma contratación de los siguientes organismos públicos o privados:
- Asimismo, se compromete a informar por escrito a este organismo de las solicitudes de subvención que pueda realizar ante otros organismos públicos o privados para esta misma contratación.

Eskaera data Fecha solicitud	Erakundea Institución	Programa Programa	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	Emandako laguntza Ayuda concedida

Eta behar den lekuan ager dadin, sinatzen du
Güeñesen, 2025ko.....aren(e)(a)n.
Legezko ordezkariaren sinadura
eta enpresa edo erakundearen zigilua

Y para que conste donde proceda, lo firma
En Güeñes, a..... de.....de 2025
Firma del/la representante legal
y sello de la empresa o entidad

